

SASTRAKA MALEZA

Tello Lizarralde
Jose Iguazio Agorreta
Imanol Ubeda
Iñaki Ruyra

Sastraka / Maleza

Egileak:

Pello Lizarralde

José Ignacio Agorreta

Imanol Ubeda

Imanol Rayo

Bilduma: Bakanak, 19

ISBN / EAN: 978-84-9109-775-4

Salneurria: 39,00 € (BEZa barne)

Orri kopurua: 220

Formatua: Cartoné – 30 x 30 cm

Edukia: Liburua + 2 audio CD

Sastraka/Maleza beste hainbeste arlotan arituak diren lau lagunen lanaren emaitza da. Honen guztiaren sorreran Pello Lizarralde Juan Ignacio Agorreta margolariari bidali zion testu bat dago; oinarri bera hartuta, handik gutxira, Imanol Ubeda musikariak hamabi kanta ondu zituen eta Imanol Rayo zinemagileak argazki bilduma.

Sastraka/Malezan bidaia labur bat dago, ezinezko bidaia bat. Heriotzaren kontzientzia, apur bat bada ere, izan orduko, gero eta maizago harrapatzen gaitu iraganera itzultzeko bidea hartzeak. Eta itzuli egin behar jakiteko bidearen buruan itzalak eta dezepzioa besterik ez dagoela eta irtenbideren bat bilatzera behartuta zaudela.

Testu honetatik abiatuta sortu den guztia Iruñean, Gasteizen eta Donostian egongo da ikusgai urte honetan zehar. Inaugurazio egunetan Imanol Ubedak eta Don Inorrez-ek kontzertua eskainiko dute egitasmo honetarako egindako kankak aurkezteko.

Sastraka/Maleza ez da erakusketa hutsa, ordea, gainera liburu bat baita. Erein argitaletxeak argitaratu du eta egindako lan guztia jasotzen du: testua, margoak, diskoa, argazkiak eta argazki horiei laguntzeko sartutako doinuak.

Pello Lizarralde



Pello Lizarralde (Zumarraga, 1956)

Hilargiaren hotzikarak (Ustela, 1978) poema bildumarekin eman zen ezagutzera Pello Lizarralde. Aipatu lana dugu gipuzkoarraren saio bakarra poesian, haren ostean narratiba landu baitu batik bat. Zazpi eleberri eta bi ipuin liburu kaleratu ditu geroztik. Tartean da *Larrepetit* (Erein), 2003ko Euskadi Saria eraman zuen nobela.

Itzulpengintzan ere aritua da. Bereak dira Natalia Ginzburgen *Hirira doan bidea* (Igela) eta *Arratseko ahotsak* (Igela), zein Gianni Celatiren *Denak hasperenka* (Igela) nobelen egokitzapenak.

2020. urtean *Argiantza* (Erein) eman zuen argitara, 1980ko hamarkadan giroturiko nobela, eta bideogintzaren agerpenaren ostean zinemagintzak izaniko beherakadaren hasiera kontatzen du.

“Une bakoitzeko egoeraz jabetu gaitezen beharrezkoak diren mugimendu, begiraden norabide, usain eta argi tonuak emanak zaizkigu Lizarralderen nobeletan. Protagonisten arnasa sentitzen dugu: aire korronteak, egurrezko zoruaren zarata, ateen azpietako argi-lerroa, belarraren usaina. Guztia dago gure zentzu lokartuak atezuan mantentzen dituen estridentziarik gabeko mihise eder baten zerbitzura” (Harkaitz Cano, El Correo, 2002-06-26).

Beñat Sarasolak “Ctxt” argitalpenean honela laburbildu zuen Lizarralderen ibilbidea; *“Lizarralde que es un escritor de una trayectoria larga, con un reconocimiento crítico en el País Vasco difícilmente cuestionable, lleva apostando por un tipo de literatura que rechaza todo tipo de efectismos, limita la trama a la mínima expresión e hila historias donde la sutileza y el dominio narrativo dominan sobre cualquier otro elemento...en 2020 ha publicado su última novela “Argiantza” y es, a mi parecer, la novela más redonda del año”*.

Pelloc opari “pozoitu” egin zidan “Sastraka/Maleza” proiekturako testuak eman zizkidan egunean. Baina esan dezadan, haren deskarguan, ez zekiela bi urte luzetan harrapatuta edukiko ninduen prozesu baten hasiera izango zenik hura.

Etxera iritsi orduko, testuak irakurtzen hasi nintzen, bertan zer aurki nezakeen oso ondo jakin gabe. Pelloc esan zidan ez zuela asko uste bere hitz haietan koadro bat sortzeko —halakorik nahi banuen behintzat— behar besteko motibazioa aurkituko nuenik. Oso oker zegoen! Irakurketan aurrera ahala, irudiak bururatzen hasi zitzaizkidan, koadroak izan zitezkeen —izan behar zuten— irudiak.

Hitz haiek ezpainetara orduko, banekien zer egin.

Handik aurrerakoa oso erraza izan zen: beti egin ohi dudana egin behar nuen, hau da, hiriko mugatik paseatu.

Hantxe zeuden koadro guztiak.

José Ignacio Agorreta



José Ignacio Agorreta (Iruñea, 1963)

Bakarka 30 erakusketa baino gehiago egin dituen margolaria da. Bere lanak bilduma publiko askotan topatuko dituzue: Nafarroako Museoan, Iruñeko Udaletxeko Arte Garaikidearen bilduman, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, Gustavo de Maeztu Museoan, Nafarroako Kutxaren fundazioan, Nafarroako Parlamentuan, Bartzelonako Agrupación Mutuan, Nafarroako ONCEren Fundazioan edota Bordeleko Association Culturel Quai des Chartrons elkartean.

Paula Etxeberriak honela definitu du Agorretaren estiloa “Diario de Noticias” egunkarian: *“El tiempo pasa en su pintura pero sin dejar de fluir; Pasa, pero permanece. Como esas vivencias que inevitablemente no volverán, pero que habitan en un rincón esencial de nuestra memoria. Por eso, en sus cuadros nada se pierde. Al contrario, cada uno rescata lo que es digno y merecedor de ser rescatado”.*

“Berrian” Alberto Barandiaranek hauxe zioen: *“Jose Ignacio Agorreta pintorea, etxe abandonatuetako arrakaletatik barna, espazioen intimitateaz jabetu da, finezia handiz. Hautsez zikindutako leihoetatik sartzen den argierarekin, ilunari forma lapurtu dio. Tonu gris, horikara eta nabarrak lagun, inoiz bizitoki izandako guneen dekadentzia margotu du, sotil.*

Koadroek erakusten dituzten espazioak ez dira une jakin batean harrapatutako irudiak, ez di-da ateratako argazki baten erreprodukzio pertsonala edo begirada azkar baten kliska erraza. Denboraren etenik eza, hori da. Pausarik eza. Ateek edo leihoek mugatzen duten fokutik harago bizitza badoa, eta koadroaren atmosfera atzematen ahalegintzen den begi arretatsuari iruditzen zaio argia apaltzen hasiko dela halako batean, eta koadroa itzalduz joango dela, itzalduz, erabat desagertu arte. Agorretak bizi isila irudikatu du gela huts hauetan: goiz arrunt bat; arratsalde aspergarri batek utzitako giroa; ezerezaren osteko lasaitasuna. Gerta zitekeenaren nostalgia irakurtzen da mihiseetan, iradokitzen diguna gauza hurbilenetan denborak utzitako arrastoan egon daitekeela gure memoria: pareta higatuan, aulki abandonatuan, leiho ondoko errezele urratuan, harri pilatan”.

Hitzaren indarra

Karlos Aranceguik eta biok Don Inorrez egitasmoa abiatu genuenean –2018ko udaberrian atera ginen plazara ezizen horren babesean–, *power pop* estiloaren aldeko apustu irmoa egin genuen. Garai beretsuan, Pello Lizarralderen letrak jasotzen hasi nintzen. Bere letra bat musikatzen hasi orduko, gauza bitxi bat gertatzen zitzaigun. *Power pop*-era lerratu nahi eta bestelako eremuetan amaitzen genuen. Bide Ertzean taldearen azken garaiko lurretan. *New americana* delakoaren mugan. Behin eta berriz. Behin eta berriz. Hitzaren indarra zer den.

Geroztik hona bi disko eta zazpi hazbeteko single bat plazaratu ditugu. Eta denetan Pello Lizarralderen arrastoa topatuko duzue. *Sastraka/Maleza* disko-liburuarekin gatoz orain. Argitalpen honen abiapuntua idazlearen narrazio bat izan da. Kanta guztietako hitzek hortaz, Lizarralderen sinadura daramate. Bere narraziotik abiatuta eraiki dugula disko osoa, alegia.

Ez da kontu aipagarri bakarra. Abestiak sortzeko baliatzen dugun ohiko logikatik aparte aritu behar izan dugu. Arrazoia sinplea da. *Sastraka/Maleza* diskoko kantak ez daude letretan oinarrituta. Pello Lizarralderen narrazioko pasarte solteak hautatu eta musikatu ditugu. 12 atalez osatzen da *Sastraka/Maleza* idatzia eta atal bakoitzeko abesti bat ondu dugu. 12 kanta horietatik bi instrumentalak dira (horra beste berritasun bat, musika instrumentala sortu dugu estreinakoz).

Ez da ibilbide errazena izan. Aukeratu dugun mapak sekula urratu gabeko bazterretara eraman gaituelako. Baina jakingarria bezain asegarria izan da bidaiak. Ezin aipatu gabe utzi gainerako musikariek zein ekoizle artistikoek egin duten ekarpena: Paco Loco, Jacob Reguilón, Víctor Sánchez, Jonan Ordorika, Karlos Arancegui, Fernando Neira eta Mikel Azpiroz. Errepikatzeko moduko abentura izan da.

Oharra: *Sastraka/Maleza* diskoa modu isolatuan entzuten baduzu, Pello Lizarraldek bere narrazioan azaltzen duen bidaiaren 12 geldialdi topatuko dituzu. Pello Lizarralderen testuak irakurriz, Imanol Rayoren argazkiei begira edota José Ignacio Agorretaren koadroei so entzuten baduzu, akaso ulergarriago egingo zaizu gure ahalegin artistikoa.

Imanol Ubeda (Don Inorrez)



Imanol Ubeda (Tolosa, 1973)

Don Inorrez ezizenarekin ari da azken urteotan baina Imanol Ubedak ibilbide luzea osatu du euskal musikan. Deabruak Teilatuetan rock taldean eman zituen lehen urratsak eta Bide Ertzean taldearekin ibilbide luzea bezain oparoa osatu zuen. Horretaz gain, Peiremans+ taldeko buruetako bat da, Gorka Urbizu kantariarekin batera.

2018ko udaberrian, Don Inorrezen estraineko diskoa plazaratu zuen: *Mugiro bila*. Power pop estilora lerrokatzen ziren disko hartako kantak.

2019ko udazkenean, new americana estilora hurbiltzen den single bat plazaratu zuten: *Dardara hura*. Lan horretako kanten hitzak Pello Lizarralderenak dira eta azala José Ignacio Agorreta margolariak osatua da.

Don Inorrezek disko berri bat aurkeztuko du udaberri honetan: *Esku hutsik* izenekoa. Julen Azpitarte musika adituaren esanetan, “Imanol Ubedak erosotasun-gunetik aldentzeko desio adoretsua agertu zuela idatzi nuen Don Inorrezen estreinako ahaleginaren harira. Bada, bigarren honetan guraria erabat gauzatu du, eremu deseroso bezain lasaigarriak zapalduz”.

Pelloc eta José Ignaciok "Sastraka-Maleza" proiektuan parte hartzea proposatu zidatenean, ez nuen neure buruarentzat tokirik ikusten bere baitan hertsia zirudien proposamen batean: José Ignacio koadro sail bat margotzen ari zen, Pelloren testuak abiapuntu hartuta, eta Imanol Ubeda, abestiak konposatzen, oinarri beraren gainean. Proiektua, gainera, berehala egitekoa zen, eta, gauzak horrela, ez nuen neure burua hartan ikusten, lauron arteko adiskidetasun-loturak gorabehera.

Baina epeak luzatuz joan ziren, eta, bizkitartean, neure buruari galdezka hasi nintzaion ea zer ekarpen egin niezaiokeen nik proiektuari, hartan parte hartzea deliberatuz gero. Berehala ohartu nintzen bai José Ignacioren koadroak eta bai Imanolen abestiak Pelloren testuen ilustrazio literalak zirela, eta "Sastraka-Maleza" iraganera itzultzeko ezintasunaz ari dela jabetuta ("inor ez da kalterik gabe ateratzen oroitzapen batetik" dio testuetako batek), proiektua aberasteko modu bat buruatu zitzaidan, hura "itzulipurdikatuz". Beste era batera esanda, funtsean Pelloren testuekiko leiala jokatuz baina forman haietatik erabat aldentzeko zen zerbait egitea pentsatu nuen. Horretarako, nire ohiko adierazpidea —zinema— alde batera uztea eta nire beste pasioa —argazkigintza— baliatzea erabaki nuen. Baina ez irudia soilik, soinuaz lagunduta baizik. Gogo handia nuen bestelako proposamen bat aurkezteko, irudi eta soinu elkarlotuak baina aldi berean burujabeak eta beren ingurune komunitik erauzitakoak: hizkuntza zinematografikoa.

Garai hartan, aitaren aldeko familian eztabaida genuen zer egin Almadén (Ciudad Real) herrian genuen etxearekin. Uda asko eman genituen han eta oso maitea genuen etxea. Kapitulario garai bat zen hura, eta gauza batek bestea ekarri zuen. Almadén, meatze-tradizio handiko herri bat da (historian zehar munduan banatu den merkuriorearen heren bat baino gehiago handik atera da); oparotasun handiko gunea izan zen mendeetan, baina, gaur egun, ahanzturan murgilduta dago, landa-eremuko beste hainbat toki bezala. Nolabait ere, gertaera horren osagaiak Forden harako "Zein berdea zen nire harana" harenak ekartzen dizkigute gogora, diferentziak diferentzia eta xehetasunak xehetasun.

Horretan nengoela, memoria hura duintzea eta ohoratzea bururatu zitzaidan, eta, horretarako, herrian zeharreko argazki-ibilbide bat egitea, gure amonaren etxetik —desagertzeko zorian dagoen mundu horretatik— hasi eta kanpoaldean dagoen jauregi neoklasiko bateraino —XIX. mende amaierako lur-jabe, literaturazale eta politikari ospetsu batek, Segismundo Moretek, eraikiarazia. Gaur egun erabat desagertuta dagoen mundu baten maila gorena eta latifundismoaren sinboloa izandako eraikinak agerian ditu garai batean koadroak eta tapizak egondako korridore eta hormak biluziak, lurralde hauetan instalatu zen lehen komuna (gaur egun uso-zirinez estalita) edo Gerra Zibilaren arrastoak (eraikina kartzela izan zen bere errepublikazaletasunagatik ezaguna zen ingurune batean).

Ibilbide zirkular honek bizia hartzen du uda minean toki errealetan harrapatutako soinuaren bidez, eta soinua, etengabeko begizta batean erreproduziturik, toki haietako argitasun zabalaren bidez mintzo da, baina baita hango espazio hutsen bidez ere, Tanizaki bere *Itzalari gorazarre* haren bitartez mintzo izan zen bezalaxe.



Imanol Rayo (Arbizu, 1984)

Andoingo Zine eta Bideo Eskolan ikasi zuen zinema zuzendaritza, eta idazketa zinematografikoa Urnietan, Michel Gaztanbiderekin.

2011n bere opera prima zuzendu zuen: Bernardo Atxagaren eleberrian oinarritutako *Bi anai* film luzea, aurrenekoa, Donostiako Zinemaldian Zinemira saria jaso zuena.

2019an Miren gorrotxategiren *33 ezkil* eleberrian oinarritutako *Hil Kanpaiak* grabatu zuen. 2020ko Zinemaldian lehian egon zen filma, Zuzendari Berriak sailean.

2021eko udan, *Iñigo* izeneko filma aurkeztu zuen, Ignazio Loiolakoaren konbertsioan oinarriturikoa.

Mikel Insausti "Gara" egunkariko adituaren esanetan, "... Imanol Rayo *un cineasta de los que salen contados de generación en generación. Toma el relevo de los (...) maestros indiscutibles del cine contemplativo, que es el cine en estado puro por sustentarse en la narrativa visual*".

Cristian Ruizek hauxe idatzi zuen *Hil Kanpaiak* filmaren ganean: "*Pocas películas tan conscientes como Campanadas a muerto (Hil Kanpaiak) se pueden ver en estos momentos. Ni juntando los catálogos de todas las plataformas de vídeo bajo demanda disponibles seríamos capaces de respirar ni mitad de decisión y fuerza que Imanol Rayo ofrece en su película. Un segundo paso de gigante y una madura declaración de intenciones en la carrera del joven cineasta navarro; un paso que rezuma amor y dedicación a su mundo por partes iguales. (...) Se necesitan hordas de reflexión y conocimiento para poder contar una historia tan ambiciosa sin apenas palabras. Pero Imanol Rayo consigue hacer hablar a las miradas; (...) Campanadas a muerto es la experiencia sensorial más fuerte y poco explícita a la que te puedes enfrentar. Y Rayo, capitán de un navío que zarpa contra vientos y mareas, es capaz de convertir la tormenta en la más elegante poesía*".

Testu honetatik abiatuta sortu den guztia Iruñean, Gasteizen, Donostian eta Bilbon egongo da ikusgai. Inaugurazio egunetan Imanol Ubedak eta Don Inorrez-ek kontzertua eskainiko dute egitasmo honetarako egindako kantak aurkezteko.

EGITARUA

Iruñea:

- Noiz: 2022-03-18 / 2022-05-01
- Non: Ziadadelako erakusketa aretoa
- Inaugurazioa + kontzertua: 2022ko martxoak 18 / 18:30
- Antolatzailea: Iruñeko Udala

Gasteiz:

- Noiz: 2022-05-06 / 2022-05-29
- Non: Montehermoso kulturgunea
- Inaugurazioa: 2022ko maiatzak 6
- Kontzertua: 2022ko maiatzak 8 / 12:00
- Antolatzailea: Oihaneder Euskararen Etxea

Donostia:

- Noiz: 2022ko udazkenean
- Non: Zehaztu gabe
- Inaugurazioa + kontzertua: Zehaztu gabe oraindik
- Antolatzailea: Donostia Kultura

Bilbo:

- Noiz: 2023-01-09 / 2023-02-09
- Non: Bizkaia Aretoa – UPV/EHUko Txillida aretoa
- Inaugurazioa + kontzertua: Zehaztu gabe oraindik
- Antolatzailea: EHU Kultura